



A eredua

IRAKASKUNTZAKO HIZKUNTZA-ESKAKIZUNAK**HLEA****PROBA IDATZIA
2020ko deialdi irekia**

Idatzi zure kodea:

OHARRAK

1. Utzi Nortasun Agiria mahai gainean.
2. Egiatzatu azterketa-material guztiak dituzula: galdekizuna, erantzun-orria eta idazlanen orriak.
3. Idatzi zure kodea azalean, erantzun-orrian eta idazlanen orrietan.
4. Ez irten azterketatik arduradunek baimena eman arte.
5. Itzali telefonoa.
6. Entregatu azterketa-material guztiak irten aurretik.
7. Larrialdia gertatuko balitz, egin kasu arduradunen aginduei.

AZTERKETA HONETAZ

- Proba honek lau ariketa ditu: 1) Ahozkoaren ulermena 2) Irakurmena 3) Idazlan luzea 4) Idazlan laburra.
- Denbora: **3 ordu**.
- Proba honen emaitzak Interneten agertuko dira irailaren 25ean (www.euskadi.eus/hezkuntza-euskara).
- Gainditzen dutenek **Ahozko Proba** izango dute IRALEko irakastegietan, urriaren 5ean.

A eredua

IRAKURMENA

Globalizazioak dakarren izurritea

Azken urteotan gora egin dute zimitzen izurriteek. Adituen arabera, globalizazioak eta turismoaren gorakadak eragina dute zomorro horien agerpenean. Etxeetan eta bidaiariak ibili ohi diren tokietan egoten dira, ostatueta. Prebentzio-neurriak har daitezke izurriteak saihesteko, baita kontrolak egin ere.

Txikiak eta ia ikusezinak izan arren, intsektu(1)..... dira zimitzak. Joan den mende erdialdean desagertuzat(2)..... zituzten; azken urteotan,(3)..... , berriro agertu dira, eta ugaltu. Etxebizitzetako altzarrietan eta lurreko edo paretetako(4)..... ez ezik, geroz eta ugariagoak dira ostatueta ere. Ohe inguruak dituzte gustuko, gizakien odola(5)..... aprobetxatzen baitituzte gaueko lo-orduak. Adituen arabera, globalizazioak eta turismoak eragina dute haien agerpenean. Enpresek tratamenduak egiten dituzte zimitzak desinfektatzeko, baina prebentzio-neurriak ere har daitezke(6)..... ez agertzeko.

Zimitzak intsektu bizkarroiak dira, alegia, beste izaki bizidun batzuen bizkar bizi dira, eta odola xurgatuz elikatzen dira. "Intsektu(7)..... dira, eta arrauzkarak; orokorrean,(8)..... eta gorriak izaten dira" azaldu du Maria Sagrario Laborda Nafarroako Gobernuako Elikagaien Segurtasuneko eta Ingurumen Osasuneko teknikariak. Gaineratu du lau eta zazpi milimetro inguru neurtzen dutela. Kolorea eta(9)..... , ordea, aldatu egin daitezke bizi-zikloko fasearen arabera. Egunean zehar ezkutuan egon ohi dira, inguruan(10)..... ez dagoenean.(11)..... izaten dute ezkutalekutik irten eta ehizatze ordurik egokiena.

Javier Redondo izurriteen kontrako teknikaria da. Ohartarazi du zimitzak batez ere ohe inguruetan egon ohi direla, gizakien odola baitute elikatze bide: «Zain egoten dira, gizakiok(12)..... ditugun CO2a eta berotasuna detektatzen duten arte; orduan egiten dute eraso, eta odola xurgatzen». Hari esker lortzen dute elikatzea eta arrautzak jartzea.

Etxeak ez ezik, ostatuak ere gogoan izan ditu Labordak. Hain zuzen ere, sarritan Donejakue bideko aterpeetan egon ohi dira, bidea Nafarroatik(13)..... den zenbait herritan: «Erromesen ostatueta metalezko ohexkak egoten dira; bata bestearekin elkartze zuloetan sartzen dira zimitzak». Oheko arropetan, koltxoen(14)..... eta bururdietan ere ezkututzen dira. Bidaiarien mailetak eta motxilak ere gogoko dituzte, eta, gaur egun, horiek dira zimitzak garraiatzeko objekturik(15)..... .

Zimitzak(16)..... dira: herrialde batetik bestera dabilzan bidaiarien eskuko bagajeetan sartu eta erraz mugitzen dira. Adituen arabera, mende honetako(17)..... bat izan daiteke zimitzena, eta bibliografia zenbaitetan ere hala jasotzen da. Haien ustez, turismoak eta bidaiarien joan-etorriek eragin zuzena dute zimitzek azken aldia izan duten(18)..... . Gora egin du turismoak, eta geroz eta gehiago bidaiatzen da; zimitzak esku-bagajeetan sartu eta bidaiariekin iristen dira.

Redondok, berriz, klima-aldaketa ere izan du gogoan. Egun(19)..... dabil gaia, eta zenbait esparrutan eragina du: klima-aldaketak, neurri batean, mesede egin dio zimitzen ugartzeari; etxe barruetako baldintzak hobetoak dira eta, beraz, errazago ugaltzen dira.

Zimitzek sortzen dituzten ondorioei dagokienez, adituek lasaitzeko eskatu dute: ez dira intsektu arriskutsuak, eta haien(20)..... ez dute ondorio larriak sortzen. «Gizakiontzat, zimitzak ez dira arriskutsuak; bai, ordea,(21)..... . Ziztatu ostean(22)..... ateratzen zaizkigu», esplikatu du Redondok. Eta erantsi du ziztatze momentuan substantzia anestesiko bat sartzen dutela gizakien gorputzean, eta horrek erreakzioren bat edo beste sor dezakeela. Kasu horietan, Ingurumen Osasuneko teknikariak aholkatu du osasun-etxe batera joatea, alergia-kasuak baztertzeko.

Izan ere, instituzioek badituzte hainbat protokolo intsektu horiek saihesteko. Nafarroako Gobernuak zimitzen inguruko informazioa(23)..... dauka webgunean, eta baita aterpetxeetan ere. Ikuskatzeak ere egiten ditu ostatu horietan, intsektuen aztarnarik dagoen behatzeko. «Egunez joaten gara; beraz, oheko arropetan begiratu ohi dugu ea orbanik ote dagoen», azaldu du Labordak. Donostiako Udalak ere hartuak

A eredua

ditu zenbait neurri: «Hiri turistikoa da gurea, eta, beraz, zimitzen izurriteak arduratzen(24).....», adierazi du Sergio Fernandez udaleko Osasun Publikoaren eta Animalien Ongizatearen Saileko arduradunak. Duela lau urte, 2015ean, prebentzio kanpaina bat egin zuten Donostian lehenbizikoz. Gainera, izurriteen kontrola jasotzen duen ordenantza bat ere onartu zuten, eta propio eman zieten(25)..... bat zimitzei. Arduradunak azaldu du bertan aholku teknikoak jasotzen direla, eta inork izurrite bat antzeman ez gero, udal zerbitzuarekin jarri behar duela harremanetan.

Amaia Ramirez de Okariz, Berria, 2019ko urriak 22 (moldatua)

1	2	3	4	5
a. ahulak b. borrokalariak c. bakezaleak d. urduriak	a. erabaki b. uste c. ikusi d. jo	a. beraz b. aitzitik c. ordea d. gainera	a. zirrikietan b. ateetan c. margo-lanetan d. argizarietan	a. ziztatzeko b. edateko c. harrapatzeko d. xurgatzeko
6	7	8	9	10
a. intsekturik b. intsektuok c. intsektua d. intsektuek	a. zapalak b. zapalduak c. zaporetsuak d. zalapartatsuak	a. tximaluzeak b. ganorabakoak c. iletsuak d. zarpailak	a. altuera b. neurria c. gorritasuna d. ohiturak	a. predatzailerik b. arriskurik c. jenderik d. harrapakinik
11	12	13	14	15
a. Arratsaldea b. Eguerdia c. Siesta d. Gaua	a. ematen b. hartzen c. isurtzen d. garbitzen	a. zeharkatzen b. marrazten c. joaten d. igarotzen	a. josturetan b. gaintan c. ilunetan d. berrietan	a. ohikoenak b. astunenak c. erosoenak d. preziatuenak
16	17	18	19	20
a. laidogarriak b. bidaiariak c. erromesak d. sedentarioak	a. maskota b. izurriteetako c. gaixotasunetako d. buruko minetako	a. hazkunderan b. arrakastan c. galeran d. hondamendian	a. lasterka b. erdipurdi c. bolo-bolo d. irratan	a. ferekek b. kolpeek c. ziztadek d. zizpuruek
21	22	23	24	25
a. asegarriak b. gogaigarriak c. nekagarriak d. pizgarriak	a. zuloxoak b. pikorrak c. pitzadurak d. urratuak	a. arbuigarri b. baztertuta c. eskuragarri d. errepikatuta	a. du b. gaitu c. ditu d. gaituzte	a. lege b. kritika c. aipamen d. atal

A eredua

AHOZKOAREN ULERMENA

Orain, Ana Galarragari egindako elkarrizketa entzungo duzu. Bi atal ditu eta atal bakoitza bi aldiz entzungo duzu. Lehenik, galderak irakurtzeko denbora izango duzu; gero, galderen erantzuna markatu beharko duzu erantzun-orrian.

1. atala

1.- Zergatik aipatu dute Elhuyar?

- a) Biodibertsitatean espezialista delako.
- b) Artikulua argitaratu duelako.
- c) Wolframioa aurkitu zuelako.
- d) Klima-aldaketa eragin duelako.

2.- Zein da elkarrizketako gai nagusia?

- a) Aldaketa klimatikoa.
- b) Biodibertsitatea.
- c) Hondakin-urak.
- d) Ugaltze-sistemak.

3.- Egiten al dira ur-analisiak Espainian?

- a) Bai, erreka handienetan.
- b) Bai, duela hogeit hamar urte hasi ziren.
- c) Bai, Europan baino gehiago.
- d) Bai, erreka guztietan.

4.- Non topatu dituzte droga-arrasto gehien?

- a) Tuteran anfetamina gehien.
- b) Tuteran kokaina gehien.
- c) Zaragozan anfetamina gehien.
- d) Zaragozan denetik gehien.

5.- Zein arrain ugartu dira Urdaibaiko uretan?

- a) Sexu berekoak.
- b) Sexu gabekoak.
- c) Hermafroditak.
- d) Denak.

2. atala

6.- Nolakoak dira Australiako eta mendebaldeko azterketen emaitzak?

- a) Berdinak.
- b) Aldera ezinak.
- c) Mendebaldean proba asko egin dira.
- d) Mendebaldean ez da azterketarik egin.

7.- Non kontsumitzen da zuntz dietetiko gehiago?

- a) Australian Europan baino gehiago.
- b) Leku aberatsetan.
- c) Tea hartzen den lekuetan.
- d) Leku pobreetan.

8.- Zer adierazten du kafe gehiago hartzeak?

- a) Tea ez dutela gustuko.
- b) Gizarte-maila altuagoa dela.
- c) Kafeinaren beharra igo dela.
- d) Ohitura zaharrak galdu direla.

9.- Zer kontsumitzen dute gehiago pobreek?

- a) Antidepresiboak.
- b) Bitaminak.
- c) Antibiotikoak.
- d) Alkohola.

10.- Zer hartzen dute guztiek antzera?

- a) Berdura.
- b) Fruta.
- c) Botika.
- d) Bolleria.

30.

40.

50.

60.

HLEA PROBA IDATZIA

ERANTZUN-ORRIA

Idatzi zure kodea:										
--------------------	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--

AHOZKOAREN ULERMENA

1	2	3	4	5	6	7	8	9	10

IRAKURMENA

1	2	3	4	5	6	7	8	9	10

11	12	13	14	15	16	17	18	19	20

21	22	23	24	25